



ingurumena.net

Zure esku dago

Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila 51. zk Maiatza 2005



Mugikortasunaren aldeko 250 ekintza euskal udalerrietan

EKINEAN MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN BIDEAN



Diputación
Foral de Alava



Arabako
Foru Aldundia



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación Foral
de Bizkaia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aurkezpena

euskal Autonomia Erkidegoaren hazkunde ekonomikoa lotuta egon da, hamarkada askoan, garraioaren hazkudearekin eta ingurumenean eta osasunean alboko eragin negatiboekin sentsibilitate gutxi duen lurralde-ereduarekin. Gaur egun ditugun mugikortasun-ohiturak hobetu daitezke iraunkortasunaren ikuspuntutik; automobila gehiegi erabiltzen da, eta hori da, hain zuzen ere, gure herri eta hirietako ingurumen-degradazioa eragiten duen faktore nagusietako bat. 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren lehentasuna da lurralde-oreka lortzea eta mugikortasun iraunkorraren bidean aurrera egitea, eta bai halaber klima-aldaketaren eragina murgatzea ere.

Azken urteetan, euskal udalerriek hainbat jarduera egin dituzte motorrik gabeko garraio-bideak ahalbidetzeko eta motordun garraio-bideen erabilpen arrazionala bultzatzeko; horretarako, udalerriaren erakargarritasuna eta biztanleen bizi-kalitatea areagotu dituzte, eta poluzioa, zarata edo bide publikoko arriskuaren murrizpen garrantzitsu bat lortuz. Gainera, hainbat udalerriek

gauzatutako Mugikortasun Iraunkorreko udal-planak funtsezko tresna dira neurri horiek planifikatzeko eta ezartzeko.

Horrenbestez, egungo mugikortasun-moduak eredu iraunkorra-goetara zuzentzea ez da udalerrien lana soilik. Ezinbestekoa da Administrazioaren parte-hartzea –maila guztietan– eta, hein handi batean, gizartearen, hiritarren eta elkarleen laguntza trinko batekin. Funtsezkoa da eragile eta instituzio-maila guztiek ingurumena errespetatuko duen mugikortasun-eredu bat bultzatzea. Euskal Administrazio Publikotik jarduera ugari ekin behar zaie eta alderdi horien inguruan herritarrak kontzientziatzea bultzatu behar da.

‘Mugikortasun Iraunkorraren Astea’ –Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Bizkaiko Garraio Partzuegoak koordinatzen dute– egin beharreko urratsa da mugikortasun-eredu iraunkorra duen herria izateko eta, finean, bizi-kalitate hobea lortzeko egin behar dugun bidean.

Sabin Intxaurre

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua

Marta Alaña

Arabako Hirigintza eta Ingurumen Saileko Foru Diputatua

Javier de Andrés Guerra

Arabako Herrilan eta Garraio Saileko Foru Diputatua

Iosu Madariaga

Bizkaiko Ingurumen Saileko Foru Diputatua

Eusebio Melero

Bizkaiko Herri Lan eta Garraio Saileko Foru Diputatua

Luis M^a Oyarbide

Gipuzkoako Garapen Iraunkorrerako Departamentuko Foru Diputatua

Koldo Azkoitia

Gipuzkoako Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuko Foru Diputatua

Juan Cruz Nieves

Bizkaiko Garraio Partzuegoko Zuzendari Nagusia

Ingurumeneko esparru programa saila

29. zk. 2004ko otsaila "2002ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Gasen Emisioen Inbentarioa"
30. zk. 2004ko martxo "2004ko Ekobarometro Soziala"
31. zk. 2004ko martxo "Euskadi nire autorik gabe. 2003. Euskal Udalerrietako Mugikortasun Iraunkorretantz"
32. zk. 2004ko ekaina "TOKIKO AGENDA 21. Ekintza-planak martxan jartzeko gida"
33. zk. 2004ko ekaina "TOKIKO AGENDA 21. Parte-hartzeko mekanismoak martxan jartzeko gida"
34. zk. 2004ko ekaina "Ore eta paperaren sektoreko enpresen ingurumen-ekarpena garapen iraunkorrari. 2004-2006"
35. zk. 2004ko uztaila "Hondakin arriskutsuen kudeatzaileen sektoreko enpresen ingurumenekarpena garapen iraunkorrari"
36. zk. 2004ko iraila "Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasun iraunkorraren udal-planak egiteko gida praktikoa"
37. zk. 2004ko iraila "Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumen-ekarpena (2204-2006)"
38. zk. 2004ko urria "Tokiko Agenda 21. Aurrera egiteko komunikatzea. Prozesuan komunikatzeko estrategien eskuliburua"
39. zk. 2004ko otsaila "Iraunkortasuna aintzat hartzen duten jaiak"
40. zk. 2004ko otsaila "Euskal Autonomia Erkidegoko 2004ko Ingurumen Adierazleak"
41. zk. 2004ko azaroa "2003ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen inbentario"
42. zk. 2005eko urtarrila "Euskal Autonomia Erkidegoan Plan eta Programen Ingurumeninaktuaren Ebaluazio Bateratua Aplikatzeko Gida"
43. zk. 2005eko urtarrila. "Euskal Autonomia Erkidegoko Azterna Ekologikoa"
44. zk. 2005eko apirila "Euskal Autonomia Erkidegoko Garraioaren kanpo-kostuak. MUGIKOST'05"
45. zk. 2005eko ekaina "Youth x Change. Kontsumo iraunkorra: heziketa-eskuliburua"
46. zk. 2005eko apirila "Beira-, Zeramika- eta Kare-sektoreko enpresek Garapen iraunkorrari egiten dioten ingurumen-ekarpena"
47. zk. 2005eko maiatza "Euskal Autonomia erkidegoko ingurumen egoeraren laburpena 2004"
47. zk. 2005eko Maiatza. Laburpena: Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Egoera 2004
48. zk. 2005eko apirila. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruan eta biomasan dagoen karbono organikoaren inbentarioa
49. zk. 2005eko apirila. Aalborgeko konpromisoak. Euskal udalerriek Europako iraunkortasunari egindako ekarpena.
50. zk. 2005eko maiatza. 50 ingurumen-jardunbide egoki. Udalerriak eredu.


Ingurumeneko Esparru Programa Saila bildumako tituluak

www.ingurumena.net

helbide elektronikoa ikus ditzakezu



Aurkibidea



Mugikortasunaren aldeko 250 ekintza euskal udalerrietan, ekinean mugikortasun iraunkorraren bidean



Sarrera



BIZKAIA:

Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Artea, Areatza, Arantzazu, Arrieta, Bakio, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Berango, Bedia, Berriz, Bilbao, Derio, Dima, Durango, Erandio, Ermua, Gamiz-Fika, Gernika-Lumo, Getxo, Gordexola, Güeñes, Igorre, Larrabetzu, Laukiz, Lemoa, Lezama, Loiu, Mallabia, Maruri-Jatabe, Meñaka, Mungia, Muskiz, Portugalete, Sondika, Sopelana, Zeanuri, Zamudio.

ARABA:

Alegría-Dulantzi, Amurrio, Campezo-Kanpezu, Llodio, Salvatierra-Agurain, Vitoria-Gasteiz.

GIPUZKOA:

Altzaga, Andoain, Anoeta, Ataun, Arama, Arrasate, Astigarraga, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Deba, Donostia-San Sebastián, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Eibar, Elgoibar, Legorreta, Legazpi, Lazkao, Mendaro, Mutriku, Oiartzun, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Mutiloa, Segura, Soraluze-Placencia de las Armas, Tolosa, Usurbil, Urretxu, Zarautz, Zizurkil, Zumarraga, Zegama, Zerain, Zumaia, Zaldibia.

'Mugikortasunaren aldeko 250 ekintza euskal udalerrietan, ekinean mugikortasun iraunkorraren bidean' izeneko dokumentu honek biltzen ditu EAEko mugikortasun iraunkorraren inguruan udalerrietatik nahiz udalaz gaindiko administrazioetatik sustatzen ari diren lorpenak eta udalerriek '2004ko Mugikortasun Iraunkorrerako Astea' Europako kanpainan egindako jarduera nagusien balioespena.

Argitalpen honek –honen aurretik argitaratu zen iaz 'Euskal udalerriak mugikortasun iraunkorrerako bidean: Euskadi nire autorik gabe 2003'– laburbilduta eta modu grafikoan adierazten du mugikortasun iraunkorraren beharra eta apustua; hori, hain zuzen, erakunde guztiek sustatzen dute epe luzeko neurriak gauzatzuz, Mugikortasun Iraunkorrerako Planak ezarritako edo hainbat kanpainaren bidez, hala nola Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea.

Hiritarrok gara, administrazio publikoez gainera, gure mugikortasun- eta lekualdatze-ohiturak aldatzeko eragile nagusiak. Ohitura horiek faktore ekonomiko eta sozialekin zuzenki loturik, EAEn oinezko joan-etorrien ondoren gehien erabiltzen den garraiobidea autoa izatea ekarri dute.

Dokumentu honetan biltzen diren jarduerak –Europako Mugikortasun Iraunkorrerako Astearen eta jarduera iraunkorrik ezartzearen inguruan eginak– urrats eraginkorra izan nahi dute jarrera-aldaketa horretan.



Ekimenaren Jatorria eta Garapena

'Nire autorik gabeko hiria!' ekimena, 1998an sortu zenetik, ekitaldi garrantzitsua bihurtu da munduan, eta urtero parte-hartzaile gehiago izaten ditu. Bizitzeko egokiagoak diren eta zarata gutxiago duten hiriak sortzea da helburua, non ingurumena babestuko den, energia-baliabideak modu arrazionalagoan kontsumituko diren eta hiriko garapen iraunkorarekin bat datorren jokaera bultzatuko da hiritarren bidez.

'Nire autorik gabeko hiria' egunari 2000ko otsailaren 4an ekin zitzaion European, Margot Wallström Europako Ingurumen Komisarioaren bidez. Europako Batasunaren gidaritzari esker, ekimena Bata-

suneko gainerako herrialdeetara hedatu zen. 2002an lehen aldiz egin zen mugikortasun iraunkorrari eskainitako aste oso bat; irailaren 16an hasi zen, eta irailaren 22an bukatu, Nire Autorik Gabeko Egunarekin.

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea tokiko agintari eta elkarteetarako plataforma bat da, eta haren helburua da mugikortasun iraunkorrari buruz dituzten politikak, ekimenak eta jardunbide egokiak sustatzea, gaur egungo hiriko mugikortasunak ingurumenean eta bizi-kalitatean eragiten dituen kalteen inguruan herritarrak kontzientziatzen lagunduz.

86 udalerrri izan ziren EAEn Europatik ezarritako 'Kale seguruak haurrentzat' gai nagusia hartuta 2004ko Mugikortasun



Iraunkorraren Astean parte hartu zutenak. Horregatik, hainbat udalerrrik, ikastetxeekin elkarlanean, hezkuntza-jarduerak egin zituzten; besteak beste, ikastetxerako bidean dituzten gune arriskutsuak identifikatzea, bide-hezkuntza, mugikortasun-ohiturak, etab. Hala, haurrei aukera ematen zaie ikasteko eta hau-

rrak errespetatzen dituzten hiri-inguruak sortzeko modurik egokiena erabakitzeko eztabaidan parte hartzeko.

Administrazioen elkarlanetik Mugikortasun Iraunkorraren Astearen Koordinazio Batzordea eratu egin zen, Eusko



2



3



1



4

2004ko irailaren 16tik 22ra ospatutako Mugikortasun Iraunkorraren Europako Asteako eratutako materiala.

1- Horma-irudia; 2- Eranskailua; 3- Liburuentzako bereizgailua; 4- Informazio foiletua



Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak, IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, Foru Aldundiek eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak osatua– EAEn kanpaina hau koordinatzeko asmoz, laguntza teknikoa, diru laguntza eta komunikaziorako materiala emanez.

Gainera, Mugikortasun Iraunkorraren Astea aukera paregabea da hiritarrek beste zenbait garraiobideen aurrean dituzten erreakzioak aztertzeko, eta mugikortasun iraunkorraren eta irisgarritasunaren inguruan gauzatu diren edo egingo diren neurri iraunkorrak jakinarazi eta hedatzeko.

Egindako ekintza iraunkor asko Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak sustatutako eta jadanik 44 uda-

lerrietan ezarri diren Mugikortasun Iraunkorreko Planen bitartez bideratu dira. Plan hauek IHOBEk argitaraturiko 'Mugikortasun Iraunkorraren udal-planak egiteko Gida'k ezarritako metodologia jarraituz burutu dira (IEP saila 36. zk.).



Mugikortasun Iraunkorraren Astearen Koordinazio Batzardea.


Mugikortasun Iraunkorraren Asteko Creditrans-ak.




UDALERRIEK HARTUTAKO NEURRI IRAUNKORRAK

2

- 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriak
- 5.000-20.000 biztanle dituzten udalerriak
- 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak
- Eskualdeak
- Mugikortasun Iraunkorrerako udal-planak





Neurri iraunkorrak hainbat motatakoak dira, besteak beste, aldirietako aparkalekuak moldatzea, errepideak eta trenbideak desbideratzea, kaleak oinezkoentzat jartzea eta bizikletaren erabilera zabaltzea. Herrien eta hirien fisionomia aldatzeko neurriak dira, gure kaleak eta plazak oinezkoentzat irisgarriak eta seguruak izan daitezen. Mugikortasun-eta irisgarritasun-arloetan udalek egindako jarduera iraunkorrak ezagutarazteko aprobeixatu dute EAEko udalerrri askok Mugikortasun Iraunkorraren Astea.




5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrriak

AGURAIN, ALONSOTEGI, ARRIETA, ASTIGARRAGA, BAKIO, BERRIZ, KANPEZU, FRUIZ, GAMIZ-FIKA, GATIKA, GORDEXOLA, LAUKIZ, LOIU, MARURI-JATABE, MEÑAKA, SONDIKA, ZIZURKIL

AGURAIN

- Bideak oinezkoentzat jarri dira asteburuetan eta jaiegunetan.
- Autoa uzteko lekuak murriztu dira alde zaharretan eta Kale Nagusian, eta San Joan plaza oinezkoentzako prestatu da.



Agurain

ALONSOTEGI

- Koskojales Pasealekua egokitu eta hobetzea, hura baita Alonsotegiko aisiadirako ingurune nagusia. San Antolin eta Koskojales auzoen arteko eraberritzean sartzen dira lan horiek. Sareak eta zoladura hobetzea eta bideak handitzea Azordoiaga auzoan.
- Udalerriko zenbait leku jakinetan autoak aparkatzea galaraztea. Hainbat kaletan zirkulazioa berrantolatzea.

- Udalerriko hainbat auzo elkartzeko zubi berri bat egiteko proiektua, baita errotondak egitea ere albo bietara, hirigune nagusiko zirkulazioa hobetzeko.
- Bidegorria egitea 2006an, udalerriko inguruak elkarri hobeto lotzeko. Bidegorri horri esker, bizikletaz egin ahalko da Barakaldo, Alonsotegi eta Güeñes arteko bidea, eta badago Balmasedaraino lutzeko asmoa (30 Km).

ARRIETA

- Bizikletak uzteko lekuak jarri dira frontoiaren inguruan.
- Abiadura murrizteko bandak jarri dira Libao plaza-aren inguruan.
- Plazaren eta frontoiaren inguruan autoa ez uzteko pibotak jarri dira.



Arrieta

ASTIGARRAGA

- Ikastetxeetara eta udal-instalazioetara modu seguruan joateko lanak egin dira: Kale Nagusiko eta Donostia pasealekuko zebra-bideak zabaltzea, kolore biziagoekin margotu eta irisgarritasun-neurrietara egokitu.

- Udalerrian oinez ibiltzea bultzatzen duten informazio-kartelak jarri dira Kale Nagusian.
- Oinez egiteko ibilbide batzuk seinaleztatu dira (urbanizazio berrietakoak egiteko daude).



Astigarraga

BAKIO

- Irisgarritasun-plana: herritarren mugikortasuna errazteko hobekuntzak egin dira.
- Udalerriko bide nagusian gaineko pasabideak egin dira abiadura murrizteko.
- TAO zerbitzua jarri da Joshe Mari hoteletik hasi eta Askada begira-tokira arte, baita Bentalde aparkalekuan, Bakean, hondartza inguruan, kai inguruan eta Olaskoetxe aparkalekuan ere. 2004ko udan, ekainaren 19tik irailaren 19ra, martxan egon zen zerbitzua, eta 2005ean ere hala egongo da.
- Bizikletak uzteko lekuak jarri dira udalerrri guztian, batez ere hondartza inguruan eta jende gehien ibiltzen den lekuetan: udaletxean eta ikastetxeetan.
- Egitekoa den kiroldegia eta Bakea zentroa lotuko dituen bidegorria egiteko proiektua.



Bakio

- Mungialdeko Mugikortasun Iraunkorrekoko Plana.

BERRIZ

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko ekintzak egin dira, aire zabaleko aisialdirako lekuak ezartzeko programaren eta irisgarritasun-planaren barruan:
 - Mazagako hegalaren ingurua berreskuratu da: baratzetan pilatzen ari ziren obra-hondakinak eta zaborretarako materialak garbitu, eta parke bat diseinatu da. Parkean oinezko ibilbideak egin dira, eta, hala, herritarrek paseatzeko erabili ohi dituzten ibilbideak egokitu dira.
 - Berrizburura joateko oinezkoentzako bidea egokitzeko proiektua, Abeletxe eta Learreta Markina ingurutik Berrizburuko kiroldegi ingurura joateko bidea errazteko.
 - Zengotitabengoa kalearen ingurua urbanizatu da, lurpeko edukiontziekin eta espaloiekin.

KANPEZU

- Markesina berriak jarri dira.
- Goratutako zebra-bideak egitea onartu da.
- Bizikletak uzteko lekuak jarri dira udalerriko hiru tokitan.

FRUIZ

- Bizikletak uzteko hiru leku jarri dira.
- Zirkulazioa baretzeko neurriak hartu dira.
- Mungialdeko Mugikortasun Iraunkorrekoko Plana.



Bakio



Bakio



Bakio



Berriz



Gordexola

GAMIZ-FIKA

- Bizikletak uzteko lekuak jarri dira udalerriko bi tokitan.
- Mungialdeko Mugikortasun Iraunkorrerako plana.

GATIKA

- Bizikletak uzteko lekuak jarri dira herriko plazan eta frontoiaren ondoan.
- Joan-etorriak oinez egitea bultzatzeko, erdigunea eta Garai auzoa lotzen dituen espaloia zabaltzen ari dira, kilometro bateko luzera eta bi metroko zabalera ditu.
- Mungialdeko Mugikortasun Iraunkorrerako plana.

GORDEXOLA

- Bizikletak uzteko lekuak jarri dira.
- Hiri-tresneria jarri da zirkulazioa modu iraunkorrean baretzeko (adibidez, 30 km/h baino gutxiago-ko abiadura ibiltzeko seinaleak jarri dira).

LAUKIZ

- Bizikletak uzteko lekuak eta aldirietako aparkalekuak ugaritu dira, eta hala, herriko plazako zirkulazioa murriztu da.
- Bide-segurtasunaren eta garraio alternatiboaren aldeko kanpaina egin da udalerriko ikastetxean, marrazki-lehiaketa baten bidez.
- Mungialdeko Mugikortasun Iraunkorrerako plana.



Gordexola

LOIU

- Auzoetatik Zabalotxe zentrora joateko oinezkoentzako sarea diseinatu da: bi metroko plataforma libreko oinezkoentzako ibilbide argituak jarri dira, eta zirkulazioa ibiltzen den lekutik bereizi da, 1,5 metroko lorategiaren bidez,
- Informaziorako panel elektronikoak jarri dira.
- Bidegorriak egin dira.
- Oinezkoentzako espaloiak jarri dira La Merced ikastetxearen eta Airtza auzoaren artean, Larrakoetxe errotondatik Agustindarretara eta Elizondo bidetik Zamarripa auzora.



Loiu

MARURI-JATABE

- Bizikletak uzteko lekuak jarri dira.
- Aldirietako aparkaleku bat jarri da, herriko plazako zirkulaziorik gabe uzteko.
- Informaziorako web guneak eta zerbitzuak jarri dira.
- Mungialdeko Mugikortasun Iraunkorrerako plana.
- Irisgarritasunari buruzko azterketa egin da.



Maruri-Jatabe

MEÑAKA

- Lau aparkaleku jarri dira.
- Mungialdeko Mugikortasun Iraunkorrerako plana.



Meñaka



Sondika

SONDIKA

- Zerbitzu teknikoetarako bizikleta bat erosi da udalerrira ikuskatzeko.
- Bizikletak uzteko lekua jarri da kultur erabileretarako udalaren eraikin berrian.
- Irisgarritasun-planean aurreikusitako zirkulazioa baretzeko neurriak hartu dira duela gutxi urbanizatutako eremuetan.
- Lurzoru urbanizaezinean oinezkoen, pasealekuen eta ibilbideen sarea egiten eta zabaltzen ari dira.
- Aurreikusita dauden edo gauzitzen ari diren urbanizazio-lanetan oinezkoen pasealekuak eta bidegorri-zatiak egiten ari dira (batzuetan, elkartu egiten dira pasealekua eta bidegorria), udalerriko hiri-lurzoru guztian sare bat egiteko.
- Udalaren eraikinetan (kiroldegia...) bizikletak uzteko lekuak egitea aurreikusita dago.
- Arau subsidiarioen berrikuspenean oinezkoentzako eremu bat, aparkaleku alternatiboak, mugikortasun-plana, e.a. gaineratzea dago aurreikusita.

ZIZURKIL


- 'Eskolara Oinez' proiektua egingo da Pedro Mari Otaño eskolarekin batera, eskolarako bidearen segurtasuna hobetzeko. Horretarako, ikasleek taldeka egingo dute lan, eta puntu kritikoak markatuko dituzte (bide arriskutsuak gurutzatzea, espaloietako edukiontziak, ibilbidea oztopatzen duten lanak...). Ondoren, alkateari eta udaltzaingoaren arduradunari aurkeztuko dizkiote emaitzak, eta irtenbide batzuk proposatuko dizkiote (zirkulazioa erregulatzeko udaltzaingoaren beharra, semaforoak, espaloi zabalagoak, bidegorriak...). Alkateak eta udaltzaingoak, berriz, martxan jarriko dituzten ekintzak eta irtenbideak aurkeztuko dituzte, eta arazorik zailenak nola konponduko dituzten azalduko dute.
- Foru Aldundiak konpromisoa hartu du bizikletarientzako azpiegitura berriak egiteko: bidegorriak, aparkalekuak, seinaleak jartzea, bizikleten alokairua...



Zizurkil



Sondika



Laukiz



5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerriak



Andoain

ABANTO-ZIERBENA, AMURRIO, ANDOAIN, AZKOITIA, AZPEITIA, BALMASEDA, BERANGO, DERIO, GUEÑES, LAUDIO, MUNGIA, MUSKIZ, OIARTZUN, SOPELANA, TOLOSA, USURBIL, ZUMAIA



Abanto-Zierbena

- Oinezkoentzako eremuak.
- Bizikletentzako bidea: Landako, Mediko, Bañuetaibar eta Bañueta kaleak.
- Gomendatutako aparkaleku berriak: Aiala kalea.
- Bide-hezkuntza.
- Mugikortasun Iraunkorrerako plana.
- Irisgarritasun-plana.

ANDOAIN

- Bastero Kulturgunearen ingurua eta Kale Nagusia oinezkoentzako jarri dira.
- Espaloietan ez aparkatzeko neurriak hartu dira, Juan Bautista Erro kalean eta Kale Berrian pibotak jarritz.



Andoain

ABANTO-ZIERBENA

- Udaletik igarotzen den bide berde bat inauguratu da.

AMURRIO

- Mugikortasun Iraunkorraren aldeko astea baliatu zen Udaleko Mugikortasun Iraunkorrerako planak aurreikusten dituen ekintzetako batzuk herritarrei ezagutarazteko. Ekintza horien artean, hiribusa martxan jartzea aipatu behar da: 2004ko irailaren 20tik 24ra, Amurrioko Udalak auzoak erdigunearekin lotzen zituen hiribus bat jarri zuen herritarrentzat. Autobusak arrakasta handia izan zuen herritarren artean (1.781 pertsonak erabili zuten martxan egon zen bost egunetan). Hori dela eta, autobusa 6 hilabetez jartzeko asmoa dago, behin betiko jartzeak merezi duen ikusteko.



Amurrio

- Zumea kaletik Larra-mendi kalera bidegorria egin da.
- La Salle kalean lau arrapala eraiki dira, elizaren eta udaletxearen ingurua udalerriaren goialdearekin lotzeko.



Andoain

- Seinaleztaturako ibilbideak egin dira eskualdeko udal-kiroldegiak lotzeko: Lasarte, Hernani, Usurbil, Urnieta eta Andoain.
- Oinezkoentzako eremu berriak sortu dira oinezkoen pasabideetako traba arkitektonikoak pixkanaka kenduz.

AZKOITIA

- Azkoitiko alde zaharra oinezkoentzako prestatu da, bide publikoaren erabilera bultzatzeko. Horrek onura handiak ekartzen ditu: irisgarritasuna hobetzea, herritarren arteko komunikazioa hobetzea, herriko merkataritza bultzatzea... Alde Zaharra oinezkoentzako prestatzeko, ibilgailuak alde zaharrera sartzeari mugak jarri zaizkio asteburuetan. Ibilgailuek ezingo dute alde zaharrean ibili ordu hauetan: larunbatetan, 17:00etatik 21:00etara eta, igandeetan, 11:00etatik 21:00etara. Orain arte, eskuzko pibotak erabili dira ibilgailuak ez pasatzeko.
- Gerora, Alde Zaharreko bizilagunek aparkatzeko eta zamalanetarako bakarrik utziko zaie ibilgailuei pasatzen. Etorbizunean, alde zaharra oinezkoak bakarrik ibiltzeko tokia izango da.

AZPEITIA

- Irisgarritasunari eta mugikortasunari buruzko azterketa egin da, eta, zehazki, aparkalekuei eta Santutxo, Etxe Alai eta Arana Goikoa auzoetako eremu publikoak berreskuratzeari buruzkoa. Auzo horiek udalerrian goialdean daude, eta irisgarritasun-arazoak dituzte. Hala, igo-gailu bat jarri dute auzo horietara joateko.
- Mugikortasun Iraunkorrerako plana idatzi da. Arau subsidiarioen berrikuspenean mugikortasun iraunkorraren irizpideak barneratzea da planaren helburua.

- Mugikortasun iraunkorrari buruzko planari esker, Azpeitiko alde zaharra oinezkoentzako prestatzeko lanak egingo dira hainbat fase-tan. Enparan kalea oinezkoentzako egokituko da, eta pibot mugikorrak jarriko dira bizilagunentzat.
- Plaza Nagusiko eta beste gune batzuetako TAO zerbitzua aldatzea dago aurreikusita, eta Santiago kalean norabide bakarra jartzea.
- Mugikortasun iraunkorrarekin lotutako beste ekintza batzuk egiteko proiektua ere badago. Adibidez, bidegorri-zati bat egingo da eta poligonoetara joateko garraioa antolatuko da.

BALMASEDA

- Aldirietako aparkalekuak jarri dira frontoian, kaleetan zirkulazioa galarazteari erantzuna emateko eta urteko hainbat alditan eta festa-egunetan (adibidez, Erdi Aroko merkatuan eta Putxeretan) herrira etortzen den jendeak autoa non utzi izan dezan.
- Bizikletak uzteko lekuak jarri dira igerilekuaren inguruan. Eskola publikoetan eta udal-ambulatorioan ere bizikletak uzteko lekuak egiteko proiektua dago.
- Magdalena auzoan, Ateneo plazan eta FEVEren lur-eremu zaharrean aparkalekuak egin dira, eta, epe luzeagora, Agirre Lehendakaria parkean aparkaleku bat egiteko asmoa dago.
- Mugikortasunari buruzko informazio-zerbitzua udalaren web gunean.
- Irisgarritasun-plana gauzatze-fasean.
- Asteburuetan eta jaiegunetan autoei Alde Zaharrera sartzeari galaraztea aurreikusita dago, udaleko hainbat leku oinezkoentzako prestatzeko egiten ari diren lanak bukatzen direnerako.
- Bizkaibusen lineak zabaltzeko proiektua.



Balmaseda



Balmaseda



Azpeitia



Berango

BERANGO

- Zahar-etxeak minusbaliatuen mugikortasunera egokitutako instalazioak eta sarbideak ditu.
- Beheratutako pasabideak egin dira Simon de Otxandategi kalean eta irisgarritasun-irizpideekin zabaltzen ari diren Axgane auzoaren zati bat oinezkoentzako jarri da.

DERIO

- Udal-mugikortasunerako plana esleituta dago, eta prestatzen ari dira.
- Udalerrian Bizkaiko Bizikleta Plana ezartzeari buruzko azterketa egin da (Bilbo-Mungia zatia), eta Txorierrin zeharkako bide-sareak jartzeari buruzkoa.
- Gernikako Arbola etorbidea berrituko da laster: espaloiak zabalduko dira, oinezkoei erraztasunak emango zaizkie errepidea gurutzatzeko, zirkulazioa baretuko da eta aparkaleku gehiago egongo dira.

GUEÑES

- Lujar-Eretza ibilbidea seinaleztatu eta bultzatu da. Mendiko ibilbide laburra da, udalerriko beste ibilbide baten jarraipena, eta bien artean eraztun bat osatzen dute.
- Bizikletak uzteko bi leku jarri dira Sodupeko udal-igerilekuetan eta Sodupeko beste lau ikastetxetan.

LAUDIO

- Erdigunea berriz urbanizatzeko eta oinezkoentzako prestatzeko programa (Zumalakarregi etorbidearen eta Arrue Margolaria, Karmengo Andre Maria, Nerbioi eta Baias ibaia kaleen artean), herriko merkata-

ritza indarberritzeko. Aurreikusitako lau fase egin dira dagoeneko: udaletxe berria eraiki da, Herriko Plaza urbanizatu da eta Herriko Plazaren azpian aparkaleku bat eraiki da 180 garaje-plazako gaitasunarekin.

- Irisgarritasun-plana.
- Sakanguneak eta goratutako zebra-bideak egin dira zirkulazioa baretzeko.
- Laster, Ezka, Ibaizabal eta Zubiaur kaleak oinezkoentzako prestatuko dira.

MUNGIA

- Bidegorriak egin dira, eta erdigunetik 3 kilometrora dagoen Larramendi Ikastolara beste bidegorri bat egiteko proiektua dago.
- Orduetegi eta herri-barruko garraioari buruzko informazioa eta oinezko ibilbideei buruzko informazioa.
- Bizikleta erabiltzea bultzatu da.
- Goratutako pasabideak egin dira oinezkoentzako, espaloi zabalagoak eta oinezkoentzako semaforak konpondu dira.
- Neurketa eta Berteiz kaleak berrantolatu dira: espaloiak zabaldu dira eta goratutako pasabideak jarri dira oinezkoak errazago igarotzeko.
- Kaleak berrantolatu eta seinaleztatu dira, abiadura baxuko bizitzeko gune gisa.
- Mungialdeko Mugikortasun Iraunkorrerako plana.



Mungia



Llodio



Mungia



Muskiz

MUSKIZ

- Bizikletentzako eta oinezkoentzako bideak.
- Bizikletak uzteko lekuak.
- Autobus-linea, trenaren geltokiraino.
- Cendeja inguruko kale baten zati bat oinezkoentzako prestatuko da laster. Gaur egun, ibilgailuak pasatzen dira eta aparkalekuak daude kale horren bi aldeetan.

OIARTZUN




Oiartzun

- Done Eztebe plaza eta inguruak oinezkoentzako jarri dira.
- Autoeskolak eta udaltzaingoak bide-hezkuntzari buruzko ikastaroak antolatu dituzte ikastetxeetan.
- Autobus-geltokiak egokitu eta berriak eraiki dira.
- Autobus-zerbitzurik ez duten auzo-etera joateko taxi-zerbitzua jarri da, Udalak lagunduta.

- 'Bizikletaz eskolara' ekimena.
- Arditurriko bidegorria Arragua auzoraino luzatu da, eta Erreenteriako bidegorriarekin lotu da.

SOPELANA

- 'SopelBus' autobus-zerbitzua jarri da martxan. Zerbitzu berriak metro-geltokiaren eta hondartzen arteko bidea egingo du udan. Bestalde, 'TxopelBus' autobus-zerbitzua ere probatu da. Zerbitzu horren bidez, autobusak herrian egiten duen ibilbidea zabaldu egingo da neguko hila-beteetan.



Sopelana

- Arrietara-Atxabiribil eta Barinatxe hondartzen ondoko errepideetan autoak ibiltzea galarazi da.
- TAO zerbitzua martxan jartzea kontuan hartu da.
- Metro-geltokitik hondartzetara joateko bidegorria egiten jarraitu da.

TOLOSA

- Udaleko Mugikortasun Iraunkorrerako plana gauzatzea. Tokiko Agenda 21en Aholkularitza-konseiluak hartu du parte gauzatzean. Hauek dira planean jasotako ekintzak:
 - Oinezkoen mugikortasuna: Alde Zaharraren zati bat oinezkoentzako jartzea, eta irisgarritasun-plana idaztea.
 - 'Tolosa autobusean' garraio publikoa: Bi autobus-linea jarri dira. Eguneroko bono-busa erabiltzen da, eta 2004an 130.000 pertsonak baino gehiagok erabili zuten zerbitzua.



Oiartzun



Oarsoaldea



Tolosa



Tolosa

- Garraio pribatua: doako aparkalekuak eta TAO zerbitzua jarri dira (2 eremu, aparkatzeko 4 modu).

- Bizikletak: Udaleko bi eremuak lotzen dituen bidegorri-proiektua idatzi da. Lehenengo faseko lanak egin dira, eta bigarren fasekoak diseinatu. Bestalde, eskaria bultzatu da Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astearen eta Eskolako Agenda 21en bidez.

ZUMAIA

- Bidegorri bat eraiki eta seinalezatu da
- Autobus-geltokiak aldatu dira erabiltzaileei zerbitzu hobea emateko.
- Irtenguneak jarri dira zirkulazioaren abiadura murrizteko.
- Udal-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko ekintzak egin dira: arrapalak, barandak eta igogailuak.
- Mugikortasun Iraunkorrerako plana idazten hasi dira.

USURBIL

- Asteburu eta jaiegunetan oinezkoak bakarrik ibil daitezke erdigunean.
- Aginaga auzoan bizikletentzako eta oinezkoentzako bideak egin dira. Bidearen gainerako zatia Lasarte-Oriaraino iristeko proiektua dago.
- Autobusaren ordutegia zabaldu, eta tren-geltokira doan linea bat jarri da. Une honetan, markesinadun beste bi geltoki egiteko izapideak egiten ari dira (geltoki bat alde zaharraren ondoan egongo da eta bestea auzoetatik gertu).
- Bizikletak uzteko lekuak jarri dira Askatasuna plazan eta kiroldegia-
ren ondoan.
- Kale nagusia norabide bakarrekoa bihurtu da, eta espaloiak zabaldu dira.
- Irisgarritasun-planaren ondorioz, traba arkitektonikoak kendu dira: Txikiardi auzoa, Zubieta, Atxegalde, e.a.



Tolosa



Arrasate



20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak

ARRASATE, BARAKALDO, BASAURI, BILBO, ERANDIO, DONOSTIA-SAN SEBASTIAN, DURANGO, GETXO, PORTUGALETE, VITORIA-GASTEIZ, ZARAUTZ

ARRASATE

- Mugikortasun Iraunkorrari buruzko udal-plana.
- Alde Zaharra eta ondoko kaleak oinezkoentzako jarri dira: Iturriotz kalea, Erdiko kalea, Ferrerías, Olarte, Maisu Arano eta Maalako Arrabala: Asteleheneretik larunbatera autoak goizeko 7:00etatik eguerdiko 13:00ak arte bakarrik ibil daitezke eta, asteartetan, 18:00etatik 21:00ak arte.
- Bizikletak erosi dira udaleko langileek erabiltzeko (udaletxeoak, udal-euskaltegikoak eta udal-kiroldegikoak).

BARAKALDO

- Irigarritasuna hobetu da, semaforoak dituzten pasagune batzuetan itsuentzako ohartarazle akustikoak jarri.
- Bidegorrien zirkuitua Resurrección Maria Azkue Errondara iritsi da, eta bizikletak uzteko lekuak jarri dira udaleko hainbat lekutan.
- Zirkulazioa baretzeko neurriak hartu dira Aldapa, Elkano, Karrantzairu, Nafarroa, Bizkaia kaleetako eta Uribe Merindadeko zoladura aldatuz. Hala, espaloien eta errodadura-bideen arteko jauzia kendu da, errepidearen zorua goratu da eta autoa sistematik kanpo dagoen espazio bat definitu da.

- Oinezkoentzako eremu iraunkorrak sortu dira Elizate plazan eta inguruan, Lasesarre eremuan, Deserto plazan eta epaitegien parkean Eguskiagirerra arte.

BASAURI

- Oinezkoentzako ibilbideak egin dira Nerbioi ibaiaren ertzetan, San Migel hiltegi ingurutik San Fausto plazara arte.
- Artunduaga kiroldegia inguratzen duen oinezkoentzako ibilbidearen zati berri bat egin da.
- San Fausto plazatik erriberako oinezkoentzako ibilbideetara iristen den arrapala bat eraiki da mugikortasun murriztua dutenentzako.
- Irigarritasuna hobetzeko ekintzak egin dira San Migel auzoan: koskak kendu dira eta autobus-geltokira joateko arrapala bat egin da.
- Udalerriko hainbat lekutan zebra-bideak goratu dira, adibidez, Basauri Kooperatibara eta Gaztelu ikastetxera joateko daudenak.
- Ariz ermitaren inguruan espaloiak beheratu dira arrapalaren bidez eta zebra-bideak egokitu dira.
- Mugikortasun Iraunkorrerako udal-plana egin da.



Barakaldo




Arrasate



Basauri



Basauri



Bilbo

BILBO

- Bizikletentzako bidea.
- Bizikletak uzteko lekuak.
- Garraio publikorako linea berriak.



Bilbo

- Garraio-lineen maiztasuna handitzea.
- Informazio-zerbitzua eta autoa partekatze-ko zerbitzua Udalaren web gunean.
- Ibilgailu pribatua erabiltzeari mugak jarri zaizkio Bilboko Kale Nagusian. Ibilgailu pribatuek mugatuta eduki ohi duten eremua Areatza kalera arte zabaldu zen Mugikortasun Iraunkorraren Astean, etorkizunean eremu hori oinezkoek bakarrik erabiltzeko jartzeak zer ondorio izan ditzakeen ikusteko. Etorkizuneko, Kale Nagusia eta Areatza batzeko asmoa dago.

- Zirkulazioa eten da Gregorio de la Revilla zatian, Indautxu plaza gurutzatzen duen tokian.
- Kristo kalean arrapala mekaniko bat jarri da Ulibarri kaleko beheal-detik auzoaren goialdera joateko.

ERANDIO

- Azpiegitura berriak bizikletarientzat.
- Kaleak oinezkoentzat jartzea.
- Bide seguruak eskolara joateko.
- Mugikortasun Iraunkorrerako udal-plana.

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN



Donostia

- Bidegorria Santa Katalina zubian.
- Bizikletak uzteko instalazioak.
- Zirkulazioa baretzeko neurriak.
- 'Eskolarako bidea' kanpaina: mugikortasunari buruzko bide-hezkuntza ikasleentzat.
- Oinezkoei eta ibilgailuei buruzko udal-ordenantzak.
- Irisgarritasun-plana.
- Oinezkoentzako bidea Añorga Txikira.
- Errotatxo kalea oinezkoentzat jartzea, eta Matia eta Zumalakarregi arteko oinezkoen bidea hobetzea.
- San Frantzisko kalea: Groseko ardatz hori oinezkoentzat jartzeko egiten ari diren lanei buruzko erakusketa.
- Autobusentzako bidea Galtzara Nagusian eta Erregina Erregentearen kalean.
- Ustiapenerako Laguntza Sistema (ULS): aurkezpena kalean (markesinetan, e.a.).
- Aurreikusitako proiektuak: Zabaleta, Ramon Maria Lili, Foruak-Argentinari Errepublikari bidegorria (erakusketa Santa Katalinan), oinezkoentzako bidea Añorga Txikira (Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan).
- Urbietan: TAO komertziala jarri da martxan.



Donostia

DURANGO

- Herriaren erdigunea fisikoki, funtzionalki eta sozialki indarberritu da, eta merkataritzarako, aisialdirako eta harremanetarako gune gisa zuen garrantzia berreskuratu du:
 - Erdigunea osatzen duten kaleak oinezkoentzako prestatzeko prozesua 1997tik 2004ra (Goienkalea, San Martin Ataria, Zeharkalea, Barrenkalea...).
 - Argiteria berria instalatu da, hiri-altzariak eta jardinerak jarri dira eta traba arkitektonikoak kendu dira.
 - Ibilgailu motordunekin erdigunera sartzeko kontrolatzeko sistema (bizilagunentzako txartel elektronikoen bidez) jartzeko prozesua martxan dago.

GETXO

- Oinezkoentzako bideen eta inguruen irisgarritasuna hobetu da: espaloiak zabaldu dira; espaloiak aurreratuz bidegurutzeean aparkatzeko lekuak kendu dira, oinezkoen pasabideetan arriskurik gabe begiratzeko ibilgailurik datorren ala ez; espaloiak errepidearen mailan jarri dira; oinezkoen pasabideak seinalezatu dira kolore eta material ezberdineko zoladurarekin, itsuen orientazioari laguntzeko eta hiri-altzariak jarri dira.
- Autoa partekatzeko programa Udalaren web gunean.
- Bidegorria zabaltzea.
- Bide seguruak eskolara joateko.
- Zirkulazioa baretzeko eta sarbideak kontrolatzeko sistemak jarri dira: 30 km/h-ra jaitsi da abiadura-muga, zirkulaziorako eta aparkatzeko arau berriak ezarri dira, kaleak birdiseinatu dira eta ibilgailuek, bizitzeko guneek... okupatutako espazioa berrantolatatu da.

- Zoru baxuko garraio publikoa, gurpil-aulkientzako arrapalekin.
- Espaloiak hobetzeko eta zabaltzeko proiektua Areetako eta Algortako hainbat kaletan. Proiektuak lehentasuna ematen dio oinezkoari ibilgailuaren aurrean.
- Aurreikusitako beste lan batzuk: 40 metroko altuera igotzen duen igogailua Ereaga hondartzan, eta sarbide mekanikoak Bidezabal kalean (123 metroko luzera), metro-geltokira eta osasun-zentrorra joateko bidea errazteko.

PORTUGALETE

- Garraio publikoa bultzatu da: udalerrira metroaren 2. linearekin lotu da. 2006rako 2 geltoki jarriko dira martxan udalerrian, eta hala, beste geltoki bat faltako da Santurtziko zatia amaitzeko.
- Oinezkoentzako eremuak sortu dira Araba eta Nafarroa kaleen hirigintza-erreformari esker. 3.164 metro karratuko azaleran egin dira erreformak, eta zirkulazioari bidea itxi diote oinezkoek erabil dezaten.
- Arrapala mekanikoak jarri dira. Erabilera publikokoak dira eta eguneko 24 ordutan daude martxan. Arrapalen bidez, udalerriarren zati baten komunikazioa hobetu nahi izan da, malda handia igo behar baita leku horretara iristeko.
- Espaloiak handitu eta zabaldu dira, eta, ondorioz, errepidea eta aparkalekuak txikitu, PERCO plan-multzoaren barruan. Planak Repelega etorbidea, General Castaños–Buenavista, Abaro etorbidea, General Castaños–Santiago, Carlos VII eremuak hartzen ditu.
- Beste ekintza batzuk: eskailerak birmoldatu dira eta espaloiak egin dira Bizkaia, Buenavista, Rodriguez eta Almirante Martin Vallecilla kaleetan.



Durango



Portugalete





Vitoria-Gasteiz



Zarautz

VITORIA-GASTEIZ

- Tornu kalea oinezkoentzako prestatu da eta Fray Francisco pasealekua oinezkoentzat jartzeko proiektua dago.
- Bizikletak uzteko 45 leku jarri dira hiri guztian.
- Hiriko tranbia berria egiteko proiektua idatzi da.
- Autobus-linea berria jarri da martxan, eta zirkulazioa debekatu da Erdi Aroko Hirigunean.
- 14. linearen maiztasuna handitu da (Donostia kalea).
- Hiriko autobusen % 74ek zoru baxua daukate.
- Oinezkoen 28 pasabide goratu dira.
- Hirian bizikletaz ibiltzeko ibilbide seguruak erakusten dituen planoak argitaratu da.
- Semaforo akustikoak pixkanaka jartzen joateko plana.
- Foru eta Zerkabarren kaleen zati bat oinezkoentzako jarri da (zirkulazio mugatua).
- Autobusentzako bidea jarri da Arriagako Atea, Gaztelako Atea, Domingo Beltran, Mexiko, Atxotegi eta Wellingtongo Dukea kaleetan.
- Hiriko ibilbideen sarea eta ibilaldiak Eratzun Berdean.



Vitoria-Gasteiz

- Bizikletak mailegatzeko 9 lekuetan aparkaleku gehiago jarri dira.
- Badaia eta antzeko kale berrietako lanetan aparkalekuak gutxitu dira, eta oinezkoentzako lekua handitu da.
- Tranbia egiteko lanei ekin diete: garraiobide hori igaroko den lekua erreserbatu da.
- Zirkulazioa baretzeko neurriak: goratutako zebra-bideak jarri dira, eta gehienezko abiadura 30 km/h duten lekuak gehitu dira.
- Bide-hezkuntzari eta mugikortasunari buruzko kanpainak egin dira ikasleentzat (adibidez, 'Hiriko ibilbideen planari buruzko heziketa-kanpaina'). Gainera, ikastetxeetatik gertu dauden lekuetan abiadura murriztu da.
- Hiriko ibilbideen planari buruz informatzeko liburuxkak.
- Tuvisa garraio publikorako udal-enpresaren plan zuzentzaile berria.

ZARAUTZ

- Mugikortasunari buruzko ordenantzak egin dira, erabiltzaileen segurtasuna handitzeko, zirkulazioari behar duen arintasuna emateko eta aparkalekuak txandakatzeko eta ondo erabiltzeko. Mugikortasunari buruzko batzordeak egindako lanean eta Mugikortasun Iraunkorrerako planean oinarritu dira ordenantza horiek.
- Oinezkoentzako eta bizikletentzako udal-bandoa.
- Itsas pasealekuko ibilgailu motordun eta motorrik gabekoen zirkulazioa eta pasealekuaren sarbideak erregulatzeko bandoa egin da, eta zaindariak jarri dira.
- Irisgarritasun-plana.



Urola Garaia



Legazpi

LEGAZPI

- Udaletxe eta eliza ingurua oinezkoentzako jarri da.
- Bizikletak uzteko lekuak jarri dira.

URRETXU

- Herritarrek informatu dira udalerria oinezkoentzako prestatzeko prozesuari buruz: Jauregi kalea oinezkoentzako jartzea modu iraunkorrean, eta Areizaga plaza eta ondoko kaleak oinezkoentzako jartzea asteburuetan eta modu partzialean.

ZUMARRAGA

- Zirkulazioa baretzeko ekintzak egin dira udalerriko hainbat kaletan (Artiz auzoa, Leturias, Iparaizea...).
- Kalebarren-Areizaga plaza oinezkoentzako jarri da.



Urretxu



Arratiako Eskualdea

Eskualdeko udalerriek Mugikortasun Iraunkorrerako plana landu dute

AREATZA

- Gudarien Plaza oinezkoentzako prestatu da, aparkatzeko debekua ezarri da eta geldialdi laburretan zeharka aparkatzeko seinaleak jarri dira.
- Goikokaleren zati bat oinezkoentzako prestatu da.
- Zirkulazioa baretu da Askatasun eta San Bartolome kaleetan, harrizko zoladura jarriz, espaloiak kenduz eta aparkalekuak berrantolatuz.
- Alde Zaharreko, Bekokaleko, Goikokaleko eta Zubizaharreko zirkulazioaren sarbideak kontrolatu dira, pibot eraisgarrien bidez.

ARTEA

- Hiriguneko abiadura murriztu da goratutako pasabideak jarriz.
- Herriko Plazatik Elexabeiti auzo aldera doan bidegorria egin da. Hirigunea Elexabeiti auzoko monumentu-multzoarekin lotzeko proiektua dago.
- Zirkulazioa baretu eta irisgarritasuna hobetu da urbanizazio berrietan.



Artea

BEDIA

- Agirre Lehendakariaren Plaza eta oinezkoentzako ibilbidea egokitu eta hobetu dira. Oinezkoentzako ibilbidea plazatik Usansolo aldera joaten da Arratiako tranbia zaharren bideetik, eta Ibaizabalen ondotik itzultzen da, Barranco auzotik pasatu eta plazara iritsi arte.





DIMA

- Garraio publikorako landa-taxi bat jarri da. Landa-taxia auto monolumen bat da, udalerriko irisgarritasun-beharretara egokitutakoa. Taxiak hirigunea auzoekin lotzen du Ugaranan, asteko egun batzuetan eta prezio sinboliko baten truke.
- Plazatik gertuen dagoen Telleri kalearen zatia oinezkoentzako prestatu da.



Dima

IGORRE

- Aldirietako aparkalekua eta oinezkoentzako eremuak jarri dira futbol-zelaiaren ondoan.
- Futbol-zelaia inguratzen duen bidegorria egin da, eta laster, udalerriko beste leku eta auzo batzuetara ere iritsiko da.
- Zirkulazioa baretu da urbanizazio berrietan, sakanguneak jarriz, eta zebra-bideak jarri dira irisgarritasuna hobetzeko.



Lemona

LEMONA

- Eraikin publikoen irisgarritasuna hobetzeko ekintzak egin dira udal-txean eta ikastetxeetan.
- Zubia ari dira eraikitzen Estaziñoa eta Agirre Lehendakaria kaleen artean.
- Trenbidea lurpean jarri da eta errotonda bat egin da Estaziñoa kaleko trenbide zaharraren gainean.
- Espaloiak handitu dira, irisgarritasun-irizpideekin, Elizondo kalearen eta San Inazio auzoaren artean egin diren urbanizazio berrietan.
- Zirkulazioa baretzeko gomazko koskak jarri dira Arrañoako, Zabaleko, Errekaldeko eta Tallerretako auzo-bideetan.

ZEANURI

- Landa-taxia: auzoak hirigunearekin lotzen dituen garraio-zerbitzua, prezio sinbolikoaren truke.
- Hiriguneko San Isidro kalea oinezkoentzako prestatuko da laster: zirkulazio baretzeko neurriak hartuko dira, oinezkoentzako eremuak zabalduko dira eta irisgarritasuna hobetuko da.



Goierri

ORDIZIA, LAZKAO ETA BEASAIN

- Autobus-zerbitzu berria Ordizia, Lazkao eta Beasainen bizi diren CAFeko langileentzat. Enpresa horretako zuzendaritzak eta Goiekik (eskualde horretan Tokiko Agenda 21 koordinatzen duen erakundea) bultzatu dute ekimena. Enpresako lan-ordutegiarekin bat datorren ordutegia dute autobus horiek. Hartara, garraio kolektiboa sustatzen da, baita langileen arteko harremanak ere. Bide batez, zirkulazio-arazo gutxiago izango da enpresaren sarrera-irteeretan lan-txanden hasiera eta amaieran. .
- Bidegorriak.
- Bizikletak uzteko lekuak.
- Irisgarritasun-plana.





Debarrena

Eskualdeko udalerriek Mugikortasun Iraunkorrerako plana landu dute

DEBA

- Eskailera mekanikoak eta igogailuak jarri dira Agirretxe auzoko biztanleen irisgarritasuna hobetzeko. Hala, lotura berriak egin dira alde zahararekin, alegia, erosketak eta bizitza soziala egiteko herriko gune nagusiarekin.
- Astillero kaleko espaloiak handitu dira (2,50 metro zabal), eta eskailera-mailak kendu dira, lokaletara sartzea errazteko.

MALLABIA

- Udalerriko irisgarritasunari buruzko azterketa. Mikel Zarate kalean, Mallabarrena inguruan eta Kalbario kalean hainbat lan eginez, bizi-kalitatea eman nahi zaio hiriguneari.

SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS

- Soralzuzeren eta Bergarako Osintxu auzoaren arteko bidegorritatia egin da, eta Osintxu-Bergara zatiarekin bidegorria amaitzeko asmoa dago.
- Aurten, Alde Zaharreko Kaleberren eta Santa Ana kaleak oinezkoentzako prestatuko dira, eta datorren urtean, berriz, Etxaburueta kalea, Plaza Zaharra eta Zubi Nagusia.

ERMUA

- Zubiaurre kalea, Orbe Kardenala plaza, Komentukua kalea eta San Pelaio kalea eguerditik aurrera oinezkoentzako bakarrik jarri dira.
- Arrapala mekanikoa jarri da VI. Centenario kaletik Ongarai auzoraino.

- Bilbo-Donostia trenbideak Izelaieta kalean duen trenbide-pasagunean bide berria egingo da 2005ean.

MUTRIKU

- Minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako igogailua instalatu da Zabel kultur etxean eta Musika Eskolan.
- Portua hiriguneari lotzen duen igogailua eraikitzeko proiektua egingo da aurten, eta 2006an gauzatuko da.
- Elizaren inguruan aparkaleku bat egitea aurreikusita dago, gaur egun aparkaleku gisa erabiltzen den Herriko Plaza oinezkoek bakarrik erabil dezaten.
- Autobus-lineen ordutegiak trenaren ordutegiarekin optimizatu nahi dira, eskualdeko Mugikortasun Iraunkorrerako planaren ekintza gisa.

EIBAR

- Aire zabaleko 18 eskailera mekaniko instalatu eta martxan jarri dira Txaltxa Zelai, Armagin-Urki, Zezenbide, Sostoatarren, Arrate Bide-Legarre Gain, Muzategi-Jardiñeta eta Tiburzio Anita-Bustindui inguruetan.
- Eskailera mekanikoen bigarren planaren proiektua: 18 instalazio berri egitea dago aurreikusita.
- Orografia dela-eta Udalbusak iritsi ezin duen udalerriko lekuetara joateko taxi-autobus zerbitzua. Zerbitzu horrek autobusaren tarifa bera du, eta Eibarko Taxi Elkartearekin adostuta jarri da martxan.
- Asteburuetan, oinezkoak bakarrik ibil daitezke hirigunean.

ELGOIBAR

- Eskailera mekanikoak: eskailera mekanikoen 6 zati egin dira Urasandi auzoan –aurten beste bat egingo dute–, Artekalen eskailera mekaniko bat jarri dute, eta Ermuaranbide eta San Roke kalea elkartzeko beste bat egitea dago aurreikusita.
- Uransandi eta Arregitorre hiri-inguruneko auzoetan aparkaleku gehiago jarri dituzte.
- Espaloietako ertzak beheratu dituzte, iraunkortasun-irizpideak aplikatuz.



Elgoibar

MENDARO

- Goratutako zebra-bideak jarri dituzte udalerriko hainbat lekutan: Killimon etorbidean, Alderdieder kalean eta Azpilgoetako irteeran.
- Trinitate plaza egokitu dute irisgarritasun-irizpideak kontuan hartuta.
- Balio anitzeko aretoa, Gaztelekua eta urbanizazio berriak irisgarritasun-irizpideak kontuan hartuta egin dira.



Mugikortasun Iraunkorrerako Planak



Nabarmena da herrietako iraunkortasunik eza, batez ere, gaur egungo mugikortasun-baldintzek eragiten dutela.

Mugikortasun Iraunkorrerako udal-planak funtsezko tresnak bezala bideratu dira herrien eta auzoen irudia aldatzeko, erakargarriago egiteko eta biztanleen bizi-maila hobetzeko.

Mugikortasun Iraunkorrerako udal-planen bidez, ibilgailu pribatua ordezkatzeko alternatiba iraunkoragoak, eraginkoragoak eta erosoagoak eskaini nahi zaizkie herritarrei, eta, aldi berean, herritarrak konbentzitu nahi dira garraiobide horiek ibilgailu pribatuaren ordeza erabiltzeko.

Motorrik gabeko garraioa bultzatzen bada, besteak beste, poluzioa, zarata eta bide publikoen arriskugarritasuna murriz daitezke. Ekin-tza horiek hainbat onura ekartzen dituzte: hiriko ingurunearen kalitatea hobetzen da, leku publikoetako bizitza soziala hobetzen da, zirkulazioak sortzen duen kezka edo estresa murrizten da, eta osasuna hobetzen da.

Mugikortasun Iraunkorrerako planen metodologiak hainbat elementu bateratzen ditu: batetik, zirkulazio eta garraio-planen ikuspegi tekniko tradizionalaren elementuak; bestetik, hirigintza-plangintzen elementuak; eta, azkenik, Tokiko Agenda 21en elementuak.

Tokiko Agenda 21en ohiko lau faseek –diagnostikoa, helburuak zehaztea, ekintza-plana eta adierazleen sistema– eragin zuzena dute mugikortasun iraunkorrerako planen metodologian.



Mugikortasun Iraunkorrerako plana egiterakoan, herritarren, elkarten eta erakundeen partaidetza funtsezkoa da, baita ere udalerriko nahiz udalerriz gaindiko entitate eta erakundeen parte-hartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan, dagoeneko 8 udalerrri eta 4 eskualde –guztira 44 udalerrri biltzen dituzte– daude Mugikortasun Iraunkorrerako planaren gauzatze-fasean. (*)

http://www.ihobe.net/IHO_Publicaciones/PUB-2004-027-f-E-001.pdf




(*) Amurrio, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Basauri, Erandio, Tolosa, Zarautz, eta Arratiako, Debarreneko, Lea Artibaiko eta Mungialdeko eskualdeak.

JARDUERA NAGUSIAK ETA EMAITZAK

3

2004ko Europako Mugikortasun Iraunkorraren Aстера atxikitako EAE-ko udalerrietan egindako jarduera nagusiak eta lortutako emaitzak





Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin bat egin duten EAEko 86 udalerriek era askotako hainbat jarduera egin dituzte aste osoan zehar. Bi jarduera-mota nagusitu dira: batetik, informazio-, sentsibilizazio- eta komunikazio-jarduerak, besteak beste, herritarrei kontzientzia harrazteko eta informazioa emateko ekintzak eta bide-hezkuntza; eta, bestetik, mugikortasun iraunkorra sustatzeko jarduerak, adibidez, mugikortasun-planei buruzko informazioa ematea, etorkizunerako neurri iraunkorrei buruzko saiakerak egitea eta garraio publikoa indartzea.

Informaziorako, komunikaziorako eta sentsibilizaziorako jarduerak

Jolaserako eta heziketarako jarduerak, zirkulaziorik gabeko lekuetan nahiz eskoletan

- Ikasleekin mugikortasunaren gaia lantzea: mugikortasun iraunkorrari buruzko bideo-emanaldien eta ikasleek eta haien senideek joan-etorriak egiteko dituzten ohiturak ezagutzeko inkestan bidez, egungo mugikortasun-ereduak sortzen dituen arazoak azpimarratuz.
- Haur-parkeak, tailer didaktikoak, antzerki-lanak, lehiaketak, oztopo-lasterketak bizikletaz eta irristailuekin, marrazkiak eta graffitiak.
- Lore-mosaikoak eta mural erraldoiak egitea, Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearen kanpainarekin zerikusia duten gaiekin.
- Herriko gidariei eta oinezkoei isun sinbolikoak jartzea egindako arau-hausteengatik.
- Mugikortasunari buruzko argazki- eta idazlan-lehiaketak DBHko ikasleentzako.
- Motorrik gabeko ibilgailuak egiteko tailerra: tandem, monozikloa, belozipedia, pedaldun autoa eta triziklo handia. Horrekin batera, autoak sortzen dituen arazoak eta oinez edo bizikletaz ibiltzearen onurak azaltzen dituen begirale batek.
- Argazki-rallya eskolako hurrekin: hurrei argazki-kamerak ematen zaizkie mugikortasun-arazoei argazkiak ateratzeko eta, gero, erakusketa bat egiteko.

Bide-hezkuntza

- Bideko arau nagusiei eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleek arriskuak prebenitzeari buruzko dekalogo bat banatzea.
- Bide-hezkuntzari buruzko tailerrak eta zirkuituak RACEkin, udaltzaingoarekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean. Hurrei, oinezkoei eta gidariei zuzenduta egin dira ekintza horiek.
- Ikasleei txilibituak banatzea, zirkulazio- edo elkarbizitza-arauak urratzen dituztenak ohartarazteko.
- Irisgarritasunari buruzko tailerrak: zentzumen- eta mugimendu-minusbaliotasuna duten pertsonen lekuan jartzen dira tailerlean parte hartzen dutenak (oztopo-tailerrak ONCErekin elkarlanean, eta gurpil-aulkietan mugitzea udalerriko traba arkitektonikoak ezagutzeko).
- Ikasleekin ibilbideak egitea herrian: puntuen arteko distantziak marraztu, eta mugikortasunarekin eta irisgarritasunarekin lotutako hutsuneak eta zailtasunak zein diren adierazi, kartelen bidez.
- 'Zugatik eta ondoan dituzunengatik, berdean pasa': gizatasunaren balioak eta bide-hezkuntza oinezkoei erakusteko kanpaina.



Hitzaldiak eta erakusketak

- Irisgarritasunari buruzko udal-plana aurkeztea.
- Jardunaldirako prestatutako adierazpena ekitaldi publikoan irakurtzea, eta udalerrian ezaguna den gonbidatu berezi batek parte hartzea.
- 'Pasealeku bihurtzen diren kaleak' argazki-erakusketa: oinezkoentzako prestatu aurretik auzo batzuk zein egoeratan zeuden erakusten du.
- Bidegorri berrien aurkezpena.
- Udalbatzaren entzunaldi publikoa: mugikortasun dela-eta zein arazo aurkitu dituzten azaltzen dute haurrek, eta proposamenak egiten dituzte mugikortasuna hobetzeko (proposamenak liburuxka batean biltzen dira).


Gidariei zuzendutako jarduerak

- Autoetan informazio-orriak banatzea, irailaren 22an autorik ez erabiltzeko konpromisoa eskatuz.
- Gidariei dibulgazio-materiala banatzea, ibilgailu pribatua modu arduratsuan erabiltzeari buruz.
- Gidariei garraio publikorako bonuak banatzea.
- Gidari eta oinezkoei txartelak banatzea eta hirigunean aparkatutako autoetan liburuxka berri-emaileak jartzea.
- Gaizki aparkatutako autoei isun sinbolikoak jartzea.
- Udalarekin elkarlanean aritzen diren enpresetako langileek dituzten mugikortasun-ohiturak aztertzea, ibilgailu pribatua modu irrazionalen erabiltzeak dituen ondorioei buruz pentsarazteko.

Beste jarduerak

- Saltokiak inplikatzeko kanpainako dibulgazio-materialaren banaketan, material birziklagarriekin egindako poltsak banatzea eta eguneroko erosketak oinez egitea bultzatzea.
- 'Saharara goaz. Bizikletak Saharara' kanpaina solidarioa: jendeak emandako bizikletak jaso eta Saharara bidaltzen dira.
- Komunikaziorako materiala banatzea etxetako eta enpresetako atarietan, saltokietan eta tabernetan, kotxea partekatzea bultzatuz.
- Gaur egun zirkulaziorako eta aparkatzeko erabiltzen diren leku publikoen irudien 3D simulazioak egitea, eta aisialdirako eta paseatzeko leku bihurtzea.
- Gida-baimenak eta ibilgailuen giltzak jasotzea udaltzaingoaren bulegoan, eta parte hartzen duten gidariei kamisetak edo bideoak banatzea eta guztien artean sari bat zozkatzea.
- Mugikortasun osasungarriko ohiturak azaltzen dituen dekalogoak banatzea.
- Kanpaina guztian informaziorako stand bat jartzea.
- Forma deigarriak (loreak, autoak...) dituzten panelak jartzea udal-erri guztian. Panelek ibilgailuaren eta garraio publikoaren erabilera buruzko esaldiak eta galderak dituzte, eta eguneroko bizitzan (erosketak, aisialdia, txikitea...) mugikortasun iraunkorrago lortzeko ohiturak hartzea bultzatzen dute irakurlea.
- Mugikortasunari buruzko atalak martxan jartzea udalen web orrietan: autoa partekatzei buruzko atala, asteko programa, mugikortasun iraunkorrari buruzko aholkuak...





Mugikortasun iraunkorra bultzatzeko jarduerak

Mugikortasun Iraunkorrerako udal-planari buruzko informazioa

- Mugikortasun iraunkorraren kontzeptua azaltzen duen erakusketa.
- Mugikortasun Iraunkorrerako udal-planari buruzko informazioa udalbatzaren aretoan.
- Mugikortasun Iraunkorrerako udal-plana egiteko proposamenei buruz hausnartzeko eguna. Merkatariek, elkarteek, udal-teknikariek eta arduradun politikoek hartzen dute parte.
- Herritarrek parte hartzeko foroa Mugikortasun Iraunkorrerako udal-plana ezagutarazteko.

Etorkizunean neurri iraunkorrak hartzeko saioa

- Hiribusa martxan jartzea: alde onak eta txarrak baloratzea eta erabiltzaile potentzialen iritzia ezagutzea, zerbitzua etorkizunean martxan jarri edo ez erabakitzeko.
- Kale batzuk edo guztiak ixtea, etorkizunean oinezkoek bakarrik erabiltzeak izango dituen ondorioak ikusteko.
- Herriko Alde Zaharra oinezkoentzat bakarrik jartzea.
- Bizikletaz ibilbideak egitea, etorkizunean bidegorria igaroko den bide-zatiak probatzeko.

Garraio publikoa bultzatzea

- Garraiorako bonuak eta bonobus-zorroak doan banatzea garraio publikoa bultzatzeko.
- Hiriko eta eskualdeko garraio publikoa doan jartzea.
- Pertsonen garraioan aritzen diren enpresei linea gehiago jar ditzaten eskatzea.
- Irailaren 16 eta 22 artean, garraio publikoa erabiltzen duten errol-datutako pertsonen artean bizikleta bat zozkatzea.
- Ikasleek garraio publikoa erabiltzea eskolara joateko, eta ikasleei garraio publikoaren erabilerari buruzko informazioa ematea (ordutegiak, geltokiak, txartelak...).
- Garraio publikoaren lineak maizago ibiltzea eta ordutegiak zabaltea.

Bizikletaren erabilera bultzatzea

- Bizikleta-martxak egitea zirkulazioak sarrera mugatua duen kaleetan, erdigunean, herriaren inguruko lekuetan edo elkarren ondoan dauden udalerrietan.
- Herritarrei behar duten materiala uztea: bizikletak, kaskoak, e.a.
- Bizikletarien elkarteekin ekintzak egitea: bizikletarienzako gosaria, euritakoak banatzea, bizikletan ibiltzen ikasteko tailerra, e.a.
- Herritarrei bizikletak alokatzea ohiko prezioari deskontua eginda.
- Bizikletarienzako autobusak jartzea.

- Bizikleta bultzatzeko erakustaldiak, erakusketak eta lehiaketak.
- Bizikleten promoziorako eta mantentze-lanetarako tailerrak.
- Bizikletak eta osagarriak trukatzeko merkatua herriko plazan.
- Bizikletak uzteko eta babesteko lekuak jartzea.
- Bizikletan ibiltzeko dekalogo bat banatzea.



- Mugikortasunak udalerrian sortzen dituen arazoei buruzko argazki-erakusketak.
- Informaziorako panelak hainbat gairi buruz: poluzio atmosferikoa eta akustikoa eta osasunean eragiten dituen arriskuak, udalerriko zirkulazioa eta etorkizunerako aurreikuspenak, garraio publikoa erabiltzeari esker egiten den

ekonomia- eta ingurumen-aurrezkoa.

Oinez ibiltzea bultzatzea

- '24 ordu oinez': 24 ordu oinez ibiltzea, txandaka, udalerriko zirkuituetan. Parte-hartzaileek kanpainako banderatxoak eta kamisetak eramaten dituzte.
- 'Ttipi Ttapa': orientatzeko gaitasuna lantzen da eta oinez seguru ibiltzeak duen garrantzia erakusten da.
- Oinez ibiltzeko ohitura onei eta oinak zaintzeari buruzko dekalogo bat banatzea.

- Adineko pertsonen mugikortasuna aztertzeko tailerra. Hirugarren adinekoek egin ohi dituzten ibilbideak egiten dira "in situ".

Beste batzuk

Hitzaldiak eta erakusketak

- Bidegorri berrien aurkezpena.
- Hainbat gairi buruzko hitzaldiak: garraio publikoari buruzko, oinezkoentzako eta bizikletarietarako aholkuak.
- Mugikortasunari buruz eztabaidatzeko foroak.

- Kartelak eta festetako banderatxoak jartzea kaleetan, ikasleek idatzitako mezuekin.
- Ibilgailuen diagnostikoa egiteko tailerra CADEMekin elkarlanean: poluzioa eta egin daitekeen energia-aurrezkoa neurtzen dira.
- Energia Alternatiboen Sustapena: EEren hitzaldia energia erabiltzeari eta etxean energia berriztagarriak instalatzeko aukerei buruz, motor elektrikoarekin eta gasolinazko motorrekin ibiltzen den auto hibrido baten erakusketa.
- Zirkulazioak igaro ezin duen lekuen inguruko terraza eta tabernetan mahaiak jartzea, eta hala, oinezkoentzako eta aisialdirako espazio gehiago edukitzea.





►► Udalerriek Eusko Jauriaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren eta IHOBE S.A. ren materiala zabaldu zuten eta komunikaziorako kanpainak egin zituzten, herritarrak ahalik eta mugikortasun-ohitura iraunkorrenak hartzera bultzatzeko eta jardunaldietarako prestatutako ekintzak eta zerbitzuak ahalik eta jende gehienari ezagutarazteko.







Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatzeko eta Nire Autorik Gabeko Egunaren eragina zenbatesteko, EAEko udalerriek neurketak egin zituzten ibilgailuei, oinezkoei, bizikletariei, poluitzaile atmosferikoei eta herritarren iritzari buruz.

Neurketak egiteko gida eman zitzairen parte hartu zuten udalerriei, metodologia bera erabilia, emaitzak alderagarriak izan zitezten.



Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astean neurketak egin ziren jarduerak izandako arrakasta, herritarren parte-hartzea eta haien iritzia ezagutzeko. Autorik gabeko egunaren aurretik, egunean bertan eta ondoren egin ziren neurketak konparaketak egiteko. Parametro hauek ebaluatu ziren:

- Atmosferaren poluzioa: atmosferaren poluzioa sortzen duten hainbat elementu kontrolatu ziren.
- Poluzio akustikoa: kanpaina egin zen lekuetako zarata-mailak neurtu ziren.
- Zirkulazioa: ibilgailuen, oinezkoen, bizikletarien eta garraio publikoaren zirkulazioa neurtu zen, eta ibilgailu horien okupazioari buruzko datuak hartu ziren.
- Herritarren iritzia: iritzia ezagutzeko inkestak egin ziren herritarren sektore batzuetan.

Kyotoko Protokoloaren arabera, 2010ean EAEko berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak ezingo du izan 1990eko mugaren % 15 baino handiagoa. Hala ere, garraio-sektorearen emisioak % 77 hazi ziren 2003an, eta hazten jarraitu dute ondorengo urteetan. EAEko CO₂-aren emisioen % 26 garraioak sortzen ditu, eta ez da ahaztu behar berotegi-efektua eragiten duen gas nagusienetakoa dela.

Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astean, hainbat udalerrik bi-dea itxi zieten ibilgailuei herriko leku batzuetan. Kaleak itxeari eta egun horretan garraioa iraunkorrago aukeratu zituzten gidariei esker, 95.500 kg CO₂ gutxiago isuri ziren. Kopuru hori, beraz, ez zen isuri autorik gabeko egunean. Egun arrunt batean 340 tona CO₂ baino gehiago isurtzen dira udalerririk horietan (*).

Hala, zirkulazioari jarritako mugei esker, Bilbon 12 tona CO₂ gutxiago isuri ziren eta Getxon tona 1 gutxiago. Dena den, ibilgailuei hiri horietako sarrera guztiak itxi izan balitzaizkie, 136 eta 29 tona CO₂ gutxiago isuriko ziratekeen, hurrenez hurren.

- **Arrasate:** NO_x mailaren % 51,2eko murrizketa itxitako bi kaleen alboko kaleetan.
- **Basauri:** PM₁₀ mailaren % 72,5eko murrizketa itxitako kaleetan. Airearen kalitatea txarra izatetik onargarria izatera pasatu zen autorik gabeko egunean.
- **Bilbo:** airearen kalitatea maila onaren eta onargarriaren artean egon zen. Autorik gabeko egunean, egun arrunt batean baino askoz ere balore baxuagoak izan ziren (CO eta NO_x mailak % 55,1 eta % 33,8 murriztu ziren).


ATMOSFERAREN POLUZIOA

EAEko airearen kalitatea kontrolatzeko eta zaintzeko sareak lortu zituen atmosferaren poluzioari buruzko datuak. Hainbat poluitzailearen neurketa-datuak egunero ikus daitezke www.euskadi.net/vima_aire/indice_e.htm web gunean.

(*) Datu hori lortzeko beste datu hau hartzen da kontuan: Europako ikerketen arabera, ibilgailu pribatuak ibiltzeak 125 gr CO₂ sortzen ditu pertsona eta km bakoitzeko. EAEn, ibilgailu pribatuak 19,6 km-ko distantzia egiten dute, batez beste. (Ekobarometro Soziala, 2003)

▼
 Eguneko 70dBa-tik gorako zarata-maila gogaikarritzat hartzen da eta kexa handiak sortzen ditu. Halaber, 60 dBA-tik gorako zarata-mailak ere populazioaren ehuneko handi bat kaltetzen du. Errepideen zarata dela eta, aholkatutako mailetatik gorako zarata-mailak jasaten ditu EAEko populazioaren % 18ak.

ZARATA



- **Abanto-Zierbena:** kaleak itxi ziren egunean, Gallartako zarata-maila aurreko eta ondorengo astekoa baino % 12,3 baxuagoa izan zen, gutxi gorabehera. Hala, onargarria izatetik ona izatera pasatu zen zarata-maila.
- **Andoain:** kalea itxita egunean % 7,7 murriztu zen zarata-maila, 64,5 dBA-tik 59,5 dBA-ra.
- **Tolosa:** autorik gabeko eguneko poluzio akustikoa aurreko astekoa baino askoz ere baxuagoa izan zen. Goizez 68,8 dBA-tik 64,9 dBA-ra murriztu zen zarata-maila; hau da, % 5,6.
- **Donostia-San Sebastián:** Hernani kalean ibilgailu pribatuek sarrera mugatua zuten, eta, kale horretan, poluzio akustikoa % 9,17 murriztu zen 2000. urteko egun bereko datuekin alderatuta, 67,3-tik 74,1 dBA-ra.
- **Getxo:** itxita zeuden kaleetan asko murriztu zen zarata-maila. Andres Cortina kalean, adibidez, % 24 inguru murriztu zen (74,5

dBA-tik 56,3 dBA-ra), eta Negubide kalean % 15 (75,7 dBA-tik 63,8 dBA-ra), zirkulazio normala egoten den egun batekin alderatuta.


- **Vitoria-Gasteiz:** kaleak itxi ziren egunean, egun arruntetan baino batz bestea gutxiago izan ziren (gehienez, 17 dBA-ko murrizketa batekin).
- **Barakaldo:** Nafarroa kalean % 3 murriztu zen zarata-maila (67,9 dBA-tik 64,9 dBA-ra) eta Elejalde eta Elexpuru kaleen bidegurutzean, berriz, % 8 (81,1-tik 73,8 dBA-ra). Kale horietan bidea itxi zitaion zirkulazioari. Herriaren sarrera nagusietan (La Florida eta Lurkizaga kaleak) % 7,3 murriztu zen (81,1-tik 73,8 dBA-ra). Hala eta guztiz ere, poluzio akustikoaren maila onargarritzat hartutakoa baino altuagoa izan zen egun horretan ere.
- **Debabarrena eskualdea:** Eibarko Fermin Calbeton kalean 70,4 dBA-tik 62,8 dBA-ra murriztu zen zarata-maila, eta Unzaga Plazan 66,7-tik 63 dBA-ra. Hala ere, gomendatutako mailetatik gorakoak izan ziren egun horretako zarata-mailak.




ZIRKULAZIOAREN, OINEZKOEN, BIZIKLETARIEN ETA GARRAIO PUBLIKOAREN ZENBAKETA

- **Abanto-Zierbena:** bizikletarien eta garraio publikoaren erabiltzaileen kopurua asko igo zen, egun arrunt batean 24 inguru izaten dira, eta egun horretan 40 izan ziren.
- **Amurrio:** hilaren 22ko arratsaldean oinezkoen eta bizikletarien kopurua igo zen, hainbat jarduera egin baitziren egun horretan. Garraio publikoari dagokionez, Udalak doako hiribus bat jarri zuen aste horretan, eta 1.781 pertsonak erabili zuten.
- **Derio:** oinezkoen kopurua % 70 igo zen, batez ere, herritarrek kaleak itxi izana aprobetxatu zutelako antolatutako ekintzetan parte hartuz. Bestalde, 65 bizikletari ere izan ziren.
- **Gueñes:** oinezkoen kopurua % 78 igo zen eta garraio publikoaren erabiltzaileen kopurua, berriz, % 20.
- **Bilbo:** irailaren 22an, egun arrunt batean baino 55.581 oinezko gehiago ibili ziren, hau da, % 38,4 gehiago, 144.000tik 200.000ra igo zen kopurua, gutxi gorabehera. Gainera, 396tik 2.417ra igo zen bizikletarien kopurua zirkulazioari bidea itxitako lekuetan.
- **Vitoria-Gasteiz:** Egun arruntetan 36.328 pertsonak erabiltzen dute garraio publikoa. Autorik gabeko egunean, berriz, 39.735ek erabili zuten, hau da, ia % 10 gehiago.
- **Barakaldo:** garraio publikoaren erabiltzaileen kopurua igo zela nabaritu zen, oro har, bai Renferen Bilbo-Santurtzi linean, bai metroaren linean. Ansioko, Bagatzako eta Urbinagako geltokietan % 36, % 7 eta % 10 hazi zen bidaiarien kopurua. Bizkaibuseko ibilbide-luzeko lineetan ere pertsona gehiago ibili ziren.
- **Goierriko eskualdea:** oinezkoen kopurua % 50, % 29 eta % 11 igo zen Olaberria, Ordizia eta Ormaiztegin itxitako kaleen inguruetan. Garraio publikoa ere jende gehiagok erabili zuen.

- **Debarrena eskualdea:** Eibarko Fermin Calbeton kalean, goizez, 139tik 239ra igo zen oinezkoen kopurua. Untzaga Plazan, goizez, oinezkoen kopurua 233tik 392ra pasatu zen, arratsaldean 175etik 471ra-ko igoera izan zelarik.


Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren ia % 37k ibilgailu pribatua erabiltzen du normalean. Ibilgailuz egiten diren joan-etorrietatik % 63 udalerraren barruan egiten dira. Gainera, populazioaren laurdenak ez du inoiz ere garraio publikoa erabiltzen. Pertsona horiek beharrik eza, erosotasuna eta ohitura falta aipatzen dituzte garraio publikoa ez erabiltzearen justifikazio gisa

Zirkulazioaren murrizketaren ehunekoak



Euskal Herritarren ustez, hauek dira zirkulazioaren arazo orokortuari aurre egiteko neurririk eraginkorrenak: garraio publikoa hobetzea, oinezkoentzako eremu gehiago jartzea, bidegorri gehiago egitea edo autoaren erabilera debekatzea egun batzuetan.

IRITZIA

Inkesten bidez, herritarren joan-etorriak –eguneroko ohiturekin alderatuta– nola aldatu diren neurtu eta aztertu nahi da eta Mugikortasun Iraunkorraren Europako Asteari buruz duten iritzia ezagutu nahi da.

Inkesta orokorrak egin zaizkie herritarren sektore batzuei (langileak, merkatariak, jarduerak egin diren eremuko bizilagunak). Halaber, inkesta zehatz bat egin zaiei ikasleei, zer garraiobide erabili ohi duten ezagutzeko.




AUTORIK GABEKO EGUNA OSPATZEAREN ONURAK |

- | Zarata-maila hobea edo lasaitasun gehiago, arrisku gutxiago eta zirkulazio gutxiago.
- | Poluzio-maila murriztea.
- | Garraio alternatiboak gehiago erabiltzen dira: bizikletan, oinez edo garraio publikoan ibiltzeko erraztasun gehiago daudelako.
- | Gaiari buruzko kontzientzia hartzen da.
- | Ibilgailuen zirkulazioa minimizatzen da hirigunean, eta istripuak gutxitzen dira.
- | Jendeari kontzientzia hartzen laguntzen zaio autoa utz dezan, eta oinez ibiltzeari eta hiriaz gozatzeari bultzada ematen zaio.
- | Ohitura eta bizimodu osasungarriagoak bultzatzen dira.

AUTORIK GABEKO EGUNA OSPATZEAREN DESABANTAILAK |

- | Jende gehienaren ustez, ez du desabantailarik ekartzen.
- | Kaleak moztean eragozpenak sortzen zaizkio lanerako autoa behar duenari, eta desegokia da larrialdiren bat edo bestelako beharren bat sortzen denerako.
- | Udalerriko beste eremu batzuk kolapsatu egiten dira.
- | Beste eremu batzuetako aparkalekuak gehiago okupatzen dira.
- | Saltokiak hornitzea eta lonjetara joatea zailtzen du.
- | Ez dago nahikoa aukera ibilgailu pribatua ordezkatzeko.
- | Erosotasun eta askatasun gutxiago ematen du, eta denbora gehiago galtzen da.
- | Ezin dira erosketa handiak egin.

Autorik Gabeko Egunari buruzko herritarren iritzia



EAEn lanera joateko joateko (% 36), aisialdirako (% 24) eta eguneroko erosketetarako (% 20) egiten dira joan-etorri gehienak.

Joan-etorri gehienak oinez egiten dira (% 41), eta ibilgailu pribatua ere antzera erabiltzen da (% 37). Autobusa, berriz, askoz ere gutxiago erabiltzen da (% 10), baita trena eta metroa ere (% 6).

Inkesta erantzun zutenetatik % 80k Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea ezagutzen zuten, eta herritarren % 85en iritziz, herriko kaleetatik ibilgailu pribatuak kentzearen eta oinezkoentzako berreskuratzearen aldeko ekimen horiek egitea ideia nahiko ona edo ona da.

Gainera, herritarren laurdena herriko kale edo guñe batzuetan ibilgailuak betirako debekatzearen alde dago.



Zer egiteko prest zaude?



ANDOAIN	Autoa partekatzea	Garraio publikoa erabiltzea	Oinez joatea	Beste batzuk	Ez daki/ ez du erantzun
Lanera joateko	%32	%35	%21	%1 (autobusa)	%11
Haurrak eskolara eramateko	%10	%12	%68	%4 (bizikleta, motoa, autobusa)	%6
Erosketak egiteko	%25	%5	%43	%2 (autobús)	%25
Aisialdian	%10	%28	%43	%4 (bici,taxi,autobús,tren)	%15

AMURRIO

- Lanera oinez joaten direnetatik % 83 emakumeak dira eta % 17 gizonezkoak. Autoan bakarrik joaten direnetatik % 67 gizonezkoak dira eta % 33 emakumeak.
- Lanera joateko autoa erabiltzen dutenetatik % 14 prest daude joan-etorriak egiteko dituzten ohiturak aldatzeko eta mugikortasun iraunkorragoaren alde egiteko.

LAUDIO

- Gehienek oinez egiten dituzte joan-etorriak, ondoren autoz eta garraio publikoan. Emakumeek eta gazteek erabiltzen dute gehien garraio publikoa.
- Eskolara oinez joan beharrean bizikletaz joaten diren ikasleen kopurua hazi da. Ikasleek ekimenaren berri gehiago dute helduek baino. Udalari bidegorri gehiago egin ditzan eskatzen diote, bereziki.



DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

- % 63k badu mugikortasunari buruzko astearen berri, baina % 79aren ustez, ez da nahikoa informazio eman.
- % 26k dio garraio publikoan joan dela lanera, % 26k autoz bakarrik joan dela, eta % 23k oinez egin duela lanerako bidea.
- % 5,3k erabili ohi duen garraiobidea aldatu du autorik gabeko egunean, eta autoan bakarrik joan beharrean oinez joan da.

HARREMANETARAKO PERTSONAK

4

2004ko Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea antolatu duten Udal eta Erakundeetako harremanetarako pertsonak






Udalerria	Harremanetarako Pertsona	Helbide Elektronikoa	Telefonoa
Abanto-Zierbena	Begoña Fraile	amedioambienteymujer@yahoo.es	94-636 21 04
Dulantzi	Maite Martinez de Marañon	aalegria.maite@ayto.alava.net	94-542 08 30
Alonsotegi	Izaskun Pérez	urb2@euskalnet.net	94-486 00 30
Amurrio	Noemi Llorente	ayto.nllorente@telefonica.net	94-589 11 61
Andoain	Ramón Varela	ingurugiro.andoain@udal.gipuzkoa.net	943-30 08 30
Anoeta	Teresa Soto	kultura.anoeta@udal.gipuzkoa.net	943-65 12 00
Arrasate	Rafa Ugarte	ingurugiro@arrasate-mondragon.net	943-79 09 00
Arrieta	Carlos Laucirica	claucirica.arrieta@bizkaia.org	94-615 30 65
Astigarraga	Nerea Ollokiegi	ingurugiro@astigarraga.net	943-33 52 45
Azkoitia	Amaia Argarate	ingurumena@azkoitia.net	943-85 71 72
Azpeitia	Izaskun Ceciaga	agenda21@azpeitia-azkoitia.net	943-15 70 70
Bakio	Miren Gallo	miren.bakio@bizkaia.org	94-619 40 01
Balmaseda	Gorka López	agenda21@balmaseda.net	94-680 00 00
Barakaldo	Prudencio Loureiro	ploureiro@barakaldo.org	94-478 91 41
Basauri	Marta Santamaria/Amaia Plaza	msantamaria@basauri.net	94-466 63 07
Berango	Lucía Martín	santanakultura@berango.org	94-668 11 79
Berriz	Josu Oarbeaskoa	bulego-teknikoa@berriz.net	94-682 40 36
Bilbao	Fernando Gonzalez	fgv@ayto.bilbao.net	94-420 46 20
Kanpezu	Kepa Ortiz de Urbina	acampezo.esteban@ayto.alava.net	94-540 54 43
Derio	José Luis Ruiz de Egino	jlruizdeegino@deriokoudala.net	94-454 10 19
Donostia-San Sebastián	Josu Benaito	josu_benaito@donostia.org	943-48 13 54
Durango	Aitor Larrucea	alarrucea@durango-udala.net	94-603 00 11

Udalerria	Harremanetarako Pertsona	Helbide Elektronikoa	Telefonoa
Erandio	Aitiziber Olibán	zeuskara@erandioko-udala.net	94-417 56 16
Gamiz-Fika	Zuriñe Goti	emonasterio.gamiz-fika@bizkaia.org	94-615 31 14
Gernika-Lumo	Rafael Ensunza	ingurugiroa@gernika-lumo.net	94-627 02 00
Getxo	Josu Ateka	jateca@getxo.net	94-489 02 29
Gordexola	Iratxe Larrucea	orientación@gordexola.net	94-679 97 04
Güeñes	Jon Fernandez de La Fuente	agenda21local@guenes.net	94-669 00 04
Larrabetzu	Estibaliz Orozko	liburutegi.larrabetzu@bizkaia.org	94-455 82 71
Laukiz	Maria Fernandez	maria.fernandez@laukiz.net	94-615 10 51
Lezama	Leixurri Barrena	lbarrena@bgtxorierri.com	94-453 63 70
Laudio	Eugenio Arbaizagoitia	e.arbaizagoitia@audiokouala.net	94-403 48 68
Loiu	Ramon Sorarrain	rsorarrain.loiu@bizkaia.org	94-471 23 10
Maruri-Jatabe	Maria Fernandez	euskara.maruri@maruri-jatabe.net	94-674 22 53
Meñaka	Maite Torrealdei	iibarzabal.meñaka@bizkaia.org	94-674 21 01
Mungia	Eukene Guarrotxena	ukeg@euskalnet.net	94-674 15 16
Muskiz	Marta Cruz	medioambiente@muskiz.com	94-670 60 00
Oiartzun	Karlos Aseginolaza	mendi.oiartzun@udal.gipuzkoa.net	943-49 01 42
Portugalete	Concepción Rodríguez	medioambiente@portugalete.org	94-472 92 57
Salvatierra-Agurain	Mª Eugenia Ramos	dpto.mediacion@grupovadillo.com	607-11 30 66
Sondika	Ion Andoni Larizgoitia	arquitecto@sondikakoudala.euskalnet.net	94-453 51 72
Sopelana	Nuria Perez	kultura@sopelana.net	94-406 55 00
Tolosa	Antton Lekuona	ingurugiro@tolosakoudala.net	943-65 44 66
Usurbil	Alazne Lazkano / Begoña Rodríguez	ingurumena.usurbil@udal.gipuzkoa.net	943-37 19 51
Vitoria-Gasteiz	Monica Ibarrondo	mibarrondo@vitoria-gasteiz.org	945-16 26 96
Zarautz	Alejandro Vazquez	alkatea@zarautz.org	943-00 51 00
Zamudio	Jose Antonio Aristondo	jaaristondo.zamudio@bizkaia.org	94-406 09 90
Zizurkil	Ainhoa Azpeitia	nekazaritza@zizurkil.com	943-69 10 12
Zumaia	Mikel Olaizola	calidad@zehatz.es	943-86 50 25

MUNICIPIO	CONTACTO	EMAIL	TELEFONO
DEBABARRENA			
Deba	Idoia Alvarez	hondartza@deba.net	943-19 28 40
Eibar	Iñaki Serrano	urbanismo.ei@eibar.net	943-70 84 00
Elgoibar	Aitziber Cortazar	aitziberc@debegesa.com	943-74 10 50
Ermua	Angel Alvarez	tconde@udalermua.net	943-17 91 41
Mallabia	Nerea Muñoa	nmunoa@terra.es	943-17 14 61
Mendaro	Nerea Larrañaga	kultura@mendaro.net	943-03 32 82
Mutriku	Ion Gamba	izartu@mutriku.net	943-60 32 44
Soraluze-Placencia de las Amas	Iker Aldazabal	izartu@soraluze.net	943-75 30 43
GOIERRI ESKUALDEA			
Altzaga	Legorreta	GOIEKI (Goierriko Ekimena, S.A.) Maialen Galpasoro Ainhoa Alonso Zuberoa Jauregi Rosa Aurkia Leire Garmendia	maialen.agenda21.goieki@goierri.org ainhoa.agenda21.goieki@goierri.org zuberoa.agenda21.goieki@goierri.org rosa.agenda21.goieki@goierri.org leire.agenda21.goieki@goierri.org
Arama	Mutiloa		
Ataun	Olaberría		
Beasain	Ordizia		
Gabiria	Ormaiztegi		
Gaintza	Segura		
Idiazabal	Zaldibia		
Itsasondo	Zegama		
Lazkao	Zerain		



MUNICIPIO	CONTACTO	EMAIL	TELEFONO	
UROLA GARAIA				
Legazpi	UGGASA (Urola Garaiko Garapenerako Agentzia, S.A.)	iemparanza@uggasa.com	943-72 58 29	
Urretxu	Irma Emparanza	jmacaya@uggasa.com		
Zumarraga	Josune Macaya			
ARRATIA ESKUALDEA				
Areatza	Arratiako Udalen Mankomunitatea	udalsarea21.ariatia@bizkaia.org	94-631 17 17	
Bedia				
Dima				
Artea				
Igorre				Aitor Uriguen
Zeanuri				
Arantzazu				
Lemoa	Yolanda Parra	medioambiente@lemoaudal.euskalnet.net	94-631 30 35	



5

ARGITALPEN ETA ESTEKA INTERESGARRIAK

Argitalpenak

- **MUGIKOST' 05** Euskal Autonomia Erkidegoko garraioaren kanpo-kostuak.
Ingurumeneko Esparru Programa Seriea, 44. zk., 2005eko apirila



- **Euskadi nire autorik gabe!** Euskal udalerrriak mugikortasun iraunkorrerako bidean
Ingurumeneko Esparru Programa Seriea, 31. zk., 2004ko martxoa

Ingurumeneko Esparru Programa Seriea, 31. zk., 2004ko martxoa
http://www.ingurumena.net/Euskara/Doc/PMA/PMA_31.htm



- **Mugikortasun Iraunkorrerako Udal Planak egiteko gida praktikoa**
Ingurumeneko Esparru Programa Seriea, 36. zk., 2004ko iraila
http://www.ingurumena.net/Euskara/Doc/PMA/PMA_36.htm



- **Bizikletan, kerik gabeko hirirantz**
Ingurumeneko Esparru Programa Seriea, 6. zk., 2002ko apirila
http://www.ingurumena.net/Euskara/Doc/PMA/PMA_06.htm



- **Euskal Autonomia Erkidegoko Garraioa eta Ingurumena-2002ko GI adierazleak**
Ingurumeneko Esparru Programa Seriea, 8. zk., 2002ko uztaila
http://www.ingurumena.net/Euskara/Doc/PMA/PMA_08.htm



- **Hiria, haurrak eta mugikortasuna**
Ingurumeneko Esparru Programa Seriea, 14. zk., 2003ko urtarrila
http://www.ingurumena.net/Euskara/Doc/PMA/PMA_14.htm

Estekak



• Garapen Iraunkorrari buruzko Eusko Jaurlaritzaren orria
<http://www.ingurumena.net/Index.html>



• Official European website for the European Mobility Week - International Car Free Day
<http://www.mobilityweek-europe.org/>



• Bizikleta garraiobide gisa – Bizkaiko Foru Aldundia


http://www.bizkaia.net/Herri_Lanak/Bizikletak/eu_index.html?zona=saila




• Setmana de la Mobilitat Sostenible i Segura
<http://www.diasensecotxes.org/2004/home.htm>



• Aalborg-eko konprimosen web orria
<http://www.aalborgplus10.dk>



• ECF- Txirrindularien Europako Federazioa
<http://www.ecf.com/>



• Eurocities - Car Free Cities
<http://www.eurocities.org/>

Estekak



● Garraioa eta ingurumena
<http://www.t-e.eu/>



● ETSC- Garraioaren segurtasuneko
Europako Kontseilua
<http://www.etsc.be/home.php>



● European Child Friendly
Cities Network
<http://www.k-s.be/>



● Garraio Publikoaren
Nazioarteko Batasuna (UITP)
<http://www.uitp.com/home/index.cfm>



● SMILE Project: local experiences
<http://www.smile-europe.org/>



● Hiri-kudeaketako eta garapen
iraunkorreko jardute egokiak
<http://europa.eu.int/comm/urban/>